



Kinshasako biztanle batzuk, Zaireko Armadaren auto bati su eman eta barruan zeuden zazpi soldaduak kiskali ondoren, hori ospatzen. JEAN MARC BOUJON / AP

Kabilak gaur argituko du nork osatuko duten Kongo-Zaireko gobernu berria

Mobutu oraindik Togon zen atzo, abegi emango dion herrialde baten bila

Gaur jakingo da Kongo-Zaireko gobernu berria Kabilaren erreboltari taldeko kideek soilik osatuko duten edo alderdi-anitzekoa izango den. Nazioarteko erakunde eta estatu ugari oposizioa alderdiei gobernuan izateko aukera emateko eskatu diote Kabilari. Aurrerakuntza Sozialerako Batasun Demokratikoa, oposizioa alderdi nagusia, pozik agertu da erreboltarien garaipenarekin.

Agentziak / Kinshasa-Lome

LARUNBATEAN bere burua Kongo-Zaireko lehendakari izendatu zuenean, gaur arterako epea jarri zuen Laurent-Desire Kabilak Trantsizioko eta Salbazio Nazionaleko Gobernu osatzeko. Kongoren Askapenerako Indar Demokratikoen Aliantzako (KAIDA) iturriek atzo jakinarazi zuten, Kabilak erabakia du jada nola osatuko duen gobernu berria, baina oposizioa buruekin negoziazioak ixtea falta zitzaion

azken zertzeladak emateko.

Hain zuzen ere, horixe zen Kongo-Zaireko oposizio politikoaren eta nazioarteko diplomazioaren kezka nagusia: orain arte oposizioa izan diren alderdietako buruzagiek Kabilaren gobernuan ordezkari izango duten.

Hego Afrika eta Estatu Batuak buru direla, nazioarteko estatu ugari alderdi-anitzeko gobernu eratzeko eskatu diote Kabilari, hartara demokraziarako bidea errazagoa izan dadin. KAID

AKo tropek Kinshasa hartu aurreko egunetan Kabilak nazioarteko erakundeekin izan zituen elkarrizketetan agindu zien oposizioa alderdietako kideek lekua izango zutela.

Alderdi horien artean, Etienne Tshisekedi Aurrerakuntza Sozialerako Batasun Demokratikoa (ASBD) da herritarren artean itzal handiena duena. Tshisekedi lehen ministro izendatu zuen oposizioa apirilaren hasieran eta Mobuturen erregimenaren aurkako erabakiak hartzen hasi zen. Halaber, osatzeko saioa egin zuen gobernuan ordezkari izatea eskaini zien KAIDAKO erreboltariei. Baina neurri horiek aurrera eramaten hasi zenean, kargutik kendu zuen Mobutuk.

Tshisekedi ASBD alderdia pozik agertu da erreboltarietara irabazi eta Mobutu boteretik kentzea lortu dutelako. «Azke-

nean hainbeste itxaron dugun aldaketa, diktaduraren amaiera, iritsi da», adierazi zuen Mukandi ASBDko bozeramaileak. Gainera, KAIDAK bezalaxe hauteskundeak egin aurretik hilabete batzuz trantsizioko gobernuak egon behar duela indarrean uste du ASBDk, gutxi gora-behera 18-24 hilez. Kabilak ere antzeko epea jarri du hauteskundeak deitzeke, eta, besteak beste bozketak egin aurretik Kongo-Zaireko azpiegiturak hobetu behar direla adierazi du, herritar orok bozkatzeko aukera izan dezan.

Mobutu Zaireko lehendakari ohia, berriz, Togon da oraindik. Marokora joateko asmoa zuen gero handik abiatuta Europako herrialderen batean erbesteratzeko. Baina agiri denez, Frantziak eta Liechtensteinek uko egin diote Mobuturen eskaerari eta noraezean geratu da. x

Bederatzi lagun hil dituzte ustez talde islamiko armatuetako kideek Aljeriako zenbait eskualdetan

Alderdi politiko batzuek Administrazioari egotzi diote partidu baten alde «alderdikieriaz» jokatu izana

Agentziak / Aljer

USTEZ islamista armatuek bederatzi lagun hil zituzten joan den ostiraletik larunbatera bitartean Aljeriako hainbat eskualdetan. Hango komunikabideek atzo argitaratu zuten, Aljertik 50 kilometro hegoaldera dagoen Sidi-Mussa herrian, Hauchine abizeneko familia baten etxebizitzara indarrez sartu zen komando integrista bat. Komandoko kideek lepoa moztuta hil zituzten hiru senide. Komandoko kideek alde egin aurretik su eman zioten

etxeari eta sugarretan hil zen sendi horretako 5 urteko neskatu bat. Hark salbatzea lortu zuen hasieran, komandoko kideengandik ihesi mahai baten azpian ezkutatu zelako. Talde islamiko armatu horrek ihes egin baino lehen Hauchine sendiko neska bat bahitu zuen, eta etxean zeuden dirua eta bitxiak ostu, *El Watan* egunkariak argitaratu duenez.

Bussada herrian, Aljertik 350 kilometrorra, hiru emakume eta gazte bat hil zituzten ustez islamista armatuek ostiralean. La-

runbatean beste gizon baten gorpua aurkitu zuten lepoa moztuta Tipaza eskualdean, Aljeriako hiriburutik mendebaldera.

Legebiltzarra osatzeko hauteskunde kanpaina joan den aste ostegunetik hasi zen, eta talde islamiko armatuek mehatxu egin zuten atentatuak ugartu egingo zituztela kanpaina.

Hauteskundeotara aurkeztu diren zenbait alderdi politikok salatu egin dute Administrazioak «alderdikieriaz» jokatzeko duela Erakunde Nazional Demokratikoaren (END) alde. Alderdi hori

berria da eta Aljeriako Gobernu kide ugari dira horkoak. Hauteskunde kanpaina kontrolatzeko Gobernuak eta alderdiek osatutako batzorde berezia kritikatu dute alderdiek. *Liberté* egunkariaren arabera, batzordeak Liamine Zeroual Aljeriako lehendakariari jakinaraziko dizkio salaketa horiek, eta Administrazioa funtzionarioak inpartzialak izateko eskatuko dio.

Alderdiek kritikatu egin dute ENDak nazioaren ikurrak erabiltzen dituela mitinean, hori debekatu egin baitu legeak. x

laburrean

ISRAEL-LIBANO

■ Israelgo patruilera batek libaniar untzi bat suntsitu du

ITSASONTZI txiki batean zeuden guztiak hil ziren Israelgo patruila untzi batek atzo goizaldeko 05.00etan egin zien erasoan. Bi herriak banatzen dituzten uretan gertatu zen ezbeharra. Israelgo irati estatalak adierazi zuen lehergai indartsuak zeudela untzi barruan. Gainera, hiru lehergaik eztanda egin zuten atzo Libano hegoaldean Mansuri herrira doan errepi-dean. Ez da argitu lehergaiak nork ipini zituen. x

KOLONBIA

■ Garraio ministroa funtzioetatik baztertu du Samperrek

CARLOS HERNAN LOPEZ Garraio ministroaren dimisioa aztertzen den bitartean, Ernesto Samper lehendakariak funtzioetatik kanpo utzi du. Prokuradoretza aztertzen ari da Hernan Lopezen dimisioa onartu edo ez. Antza denez, Hernan Lopezek parte hartu zuen mitin publiko batean, eta horregatik aurkeztu du dimisioa, duen kargu publikoagatik debekatua baitu hori. x

B R A S I L

■ Kartzela batean matxinatutako presoek 400 lagun erretenituak dituzte

SAN VICENTEKO presondegian matxinatuta dauden presoek ehun emakume eta haur askatu zituzten joan den igandean, baina 400 inguru erretenituak dituzte. Espe-txeko agintariak ez dute argitu presoak zergatik matxinatu ziren. Senideen bisita amaitu baino lehen altxatu ziren presoak, eta bisitan ziren senideak erretenitu zituzten. Presoek epaile korregidorearekin hitz egiteko eskatu zuten, baina astelehen goizaldean inork ez zuen epailea aurkitu. x

L I B I A

■ Gaddafik gogor salatu du Turkia

ARABIA ARREN aurkako politika Turkiako Gobernuak «urrune» eraman duela esan zuen Muammar el Gaddafi buruzagiak joan den igandean. Turkiaren aurka jarrera bateratua izateko eskatu zien arabiarrei Tripolin eman zuen hitzaldian. «Turkia Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundeko (NATO) kide da eta defentsarako itun moduko bat hitzartu du juduekin. Kanan herritar libanoarrak hil zituzten pilotu israeldarrak, berriz, aire maniobrak egiten ari dira Siria, Libano eta Egiptori erasotzeko», azpimarratu zuen. x